

**G**URE elizetako kanpai otsak Euskalerra-ren biotz taupadak dirala esan geiko, bere arnasa ota. Erriaren miñak, potak eta negarrak daroier gure errietako kanpaiak: Egua-sentian, eguesdian, illuntian, jai besperetan, ilteko arduan... Danak, bakotzak bere aukerako soñu berei batekin aitzen emotezkuela. Ez dakigu eurak asmau zituan musikularia nor zan, baña danok aitzen dogu bere soñuak esan nai deskuana. Nola nai be, musikia barru-barrutik sentiteen ebanak asmau zituan: gure erriak, seguru asko.

Nor naik lelengo aldiz entzun orduko igarriko lerkioke, euren konpasetatik, noiz dan jai, noiz erretzetaroko deitzen den edo erretz ikusko dau batedon-bat agonian dagola, nait umia edo nait nau-sia, euren soñu artuak ditxuez ta.

Artista asko izan dira kanpai otsetatik euren musikagintzarako gaiak artu ditxuenak, Wagner'ek Parifol'en lelengo ta Irugarrengo ataletan; Romantizismokoak «Aremaritzakua»kin (Angelus) amaika poesia daroien musika eraingarri sortu eben, bater be Mussorgski, Rimski-Korsakov eta Jaroff musikagille klasiko rusoak. Euskaldunon artian be izan ditxugu bat edo beste alako, baña danetatik aundiena Escudero bere *Illeta'n*; Orio'ko Oteiza eskultore izen aundikuak entzun ebanian Joxe Artetxe eskritoreari esan eizetan, biotz-miñet: «Gure erriaren illeta da, mundu gutxian zabaldu biar litakena, gure erriaren esauagarria. Izan be ori da Escudero-ren *Illeta*, Euskalerra-ren miñetatik sortutako musika, bere kanpai ta gutxi. Nik pe, lelengo aldiz entzun nebanian orrelakotxe poza eruaneban. Bilbo'n zan, Azkue-ren omenez egindako jai-an, Patxi Escudero'n musikial biotzeriñok sakondu zetan Lizard'ren poema, neuk pe esateraño «Biotzean min dut, min etsia, negar ixilla darion miñan».

Baña, neure tematik urten barik, noian Placentzia'ko «Ore-kanpaina»ren barri emotera:

Mayetzeko Santa Kurutz egunetik Setienbreko Santa Kurutzetara, gure auzoko Placentzia'n, oitura zar goragarri bat dabe, trunboiak urreratzen dirala ikusten dabi-

# «ORE-KANPAIA»

onian aitzen emoteko: «Ore-Kanpaina». Da gañera oitura ori eusteko, inguru-etako basarriak urteko aihbesteko bat ipiñitza dauke generos pagatze.

Mayetzaren asieran ta setienbriaren amaieran, Santa Kurutz egun bietan, eguerdiko amabi-amabietan, parrokiako kanpaiak jotake jarduten dira lau atzo-aldietara euren durunda ota zabalduat. Aintzina-aintzinaik, oitura dan moduan, Arteta basarriko mayozakua da San Andres ermitatuaren zintzallia eta bere gain dago ekaltza urreratzen danian Placentzia'ko erriari aitzen emotia.

San Andres ermitaxo ori, muño baten gainian dago eri biargintua bende-bendian dabela. Odel balizen batsuek erriurtt datozentian, euri gogor edo txingorrek dakartzen itsuriakin, Arteta'kuak bere buruz denporaliaren iritzi bat eitzen dau eta soluetan ein liteken kaltien kalkuluak atarata gero erabagitzen dau aitzen emon ala ez. Baietxua bada, kanpaiak jotzen aratzen dau; soñu bizkor batelkin; ta placentziatar selebriak olan bautizau dabe: An, an, an... da orduan parrokiako kanpai aundia asten da, duoa eñar, soñu poliki baña drauogada sakonagaz, pregunter: Nun-da, nun-da, nun-da... Esaten dabienez orain urte batzuek, euegana alkartzen eizan mojen konbentokua, jotze azkarrago batekin erantzunat: *Tella-tuan, tella-tuan, tella-tuan*,... Aintzinago baten, baña au ez eidade eratu gaur bizi diranik tarrenak pe; orri irurori alkartzen eizan San Marzial ermitakua be. Gaur, gure egunetan, San Andres ermitakuak eta parrokiakuak bakarrik gordetzen dabe ore kanpaina jotzeko oitura zar ori.

Euren deira, baserritarak etxeratten dira, ganau, ollo ta gañerakuak kortaratuaz; ta gero, denporala -txarragora -ba-dola, tximinixan txintxilika dagon kurute tarrenaren onduan laster ixotzko dabe kandelat bat, soloak eta ortuak gordetzeko Januari erregutuaz. Etxetik urrin txamar dabizen basarritar gison mardulak, kanpai

otsa entzun orduko, txarrerakua eresten ba-detsa, bere tresnak artuta urren dagon txabolarutz juango da. Beste orrenbeate egingo dau mendian dabilen pastoriak, bere ardi-taldia eruanaz. Eta, berri, auzuetako abadiak, eñi-liburua eskuetan dabiela, bentana onduetan Januari erretzetan asiko dira. Una orretan, bastar gutxiak ixiltzen dirala trunboi otsak asten dira taratara, egualdia geruago ta illunago jartzen da, iza eguna gau biuztereaño, ta oñatuak euren suzko britzarekin kortako ganauak bildurtzeraño. Gero odeli kanpaiak ixiltzen dira eta ekaltza be jautzen da poliki-poliki urrinduz eta baserritarak jarraituko dabe euren biarretan.

Ori da ba Placentzia'ko «ore-kanpaina» deitzen detsen oitura goragarria. Ikusten dan moduan, udan bakarrik eiten da; ba, neguan ez da izaten ekaltzaren bildurrik soluetan zer galdurik ez-dagolako. Ta, gaur Placentzia erri industria ba-da be, oindioiok gordetzen dau bere aintzinako oitura, bere basarritar jatorria agrarian ipintzen dabena.

Iñoi munduan izan badira oitura askoko erriak, gure Euskalerra au dogu bat oitureri lotuta bizi izandana. Gaur modernismo egarritu onek turrit ein biar ditxu gelenok, apurka-apurka bastartuaz, ta ondo be ondo egongo litzake oitura guttiok zeste jasotia, oindioiok bizi diranak beintzat. Olan, aintzinako Grecia'k moduan, gure kultura lorrata lagako gonduke geruagoko munduarentzat. Onetzat, Barandiaran jauna dogu geien arduratu darna eta bere «Eusko-Folkloreko publikaziñuetan ba-diardu argitaratzen.

Irakorle; iñoi ez-pazera konturatu gure kanpainen musika ederragaz, entziuz mezedez, ala be musika-zalia ba-zaraz, seguru nago gustauko jaxuna. Ze izketa maitekorra daben kanpaiak, porgarria edo tristea, naustasunerko edo jolaskor. Batez be Euskalerra'ko kanpaiak.

Juan San Martin.

## BATIKANO

**A**NTXINAKO erromatarren eretxiz, munduaren ardi-aneuxoa ementxe Erroman bertan aurkitzen zan; *Pielatino* deritxon muño baten gailurrean. Gaur edozein mutikok daki mundua biritilla dala eta mundu onen erdi-unea. Palatin muñoa bestean. Anhoto ganeko zelaira be izan leikela.

Dana dala, antziñako erromarren esakun onek ba'dau bere mamiñitxo; erti-lanetan, lege-gintzian, laterrri-huru eta beste gauza askotan Erroma, luzaro baten, txapodun izan zala aitortu bear.

Gaur egunean, eneunke esango Erroma, aihbeste arazotan, txapelidun agiri danik. Gaur ezta Erroma mundu gutxiaren menperatziñlle antziñla leger; bere negusitza-aroko lorrataz bakarrik gerata yakuz gaur arte, lorratz sendo ta iraunkorrak. Uri onetan, ee-emen, orna ikaragarrikoak, jauregi erdi-ondatuak, marmolezko gitzrudi ta pilari berebiziñkoak ikusten dira; beifolako aunditasunaren ezaugarriak.

• • •

Vaticano, Erroma-ren zatitxo bat da bakarrik; baña zatitxo au eginko laterrria edo estadia da eta bertan Italia'ko Gobernuak eztauko zer-ikusirik; laterrri onen buru bakarra Aita Santua da; olantxe eraba-

gi zan bein eta betiko Gobernu eta Eleizaren artean, 1929'gn, urtean. Laterritxo onen muga-barruan dagoz Pedro Deunaren eleiza ikaragarrikoak, eleiza osteko lorategi zabalak, Aita Santuaren bizilekua eta beste olako etxe ta jauregi batzuek, baña eleiza-aurreko plaza zabela be.

Vaticano'ko Pedro Deunaren eleizen, apostolu au erail eben tokian bertan dago jasota. Gaur ikusten dogun eleiza au beru eta emen lenengo egifitxoa: onen aurretik beste batzuek be izan ziran toki berean. Oraingo au Beunante entzuetuak eratu eben, baña bearrean asi ta sortzagarren urtean il egin zan, eta beste bere anteko jakintzu batzuek jarraitu eben lan au zuzentzen. Eleizaren lenengo arria 1506'gn, urtean unifi eben, baña lana bear bestean osotuteko urte mozo ederra bear izan zan; eian eta ogel-garren urterarte, 1626'ko azillaren 18' rarte etian eleiza au amaitu.

Izan be ikaragarrikoak da Vaticano'ko eleiza nagusia, baña gutxi ederra be: auxe mundu gutxioko eleizen buru eta ama. Eleizaren erdi-erdian dago Pedro deunaren eritotz-toki santua; beronen gañe-aldian dago eleizako altara nagusia eta altara onetan Aita Santuak bakarrik esan oi dau meza; toki oneri «Confessio Sti. Petri» deritxo, Pedro deunaren odol-aitortza.

Eleizaren bealde ta ornak mueta gutxi-

tariko marmol-arrit apainduak agiri dira eta or-emen eritlari aundienetarikoak egindako irudi eder. Eleizek luzeran betik gora 45. Inguuriko altara-bitarte-etan-eta, Aita Santu askoren illobi eta irudi ederrak aurkitzen dira.

Kampotik be badauko zer-ikusit Vaticano ko eleiza nagusiak; plaza zabalera dagoan surrekaldeak 4425 metro daukoz betik gora eta 112'50 zabaleran; hatetik bestera agiri diran zortzi pillarriak, bakoitza 27 metrokoak dira. Baña danen artean ikusgarrietarikoak, eleiza-erdi parean dagoan «kupula» azken bakoa da; kupula au noriñokoa dan ikuteko, bere gailurreaño igotea bearezkoa da; kupula gañeko gurutzat, lurretik 141 metrorra dago; egunero aihbat bertoko eta kanpotarrek igon oi dau kupula-gañeraño baña bertora ordaka, bakoitxari arnasa ederto estutzen yakio.

Askok usteko dabe, Aita Santuak egunero meza eleiza onetan esan oi daua; egi esan, geienetan bere bizi-lekuan bakarrean esan oi dau; olako jai aundi edo beraritzko jazokunaren bat ospatuteko bakarrik jatsi oi da eleiza nagusira.

Benetan, katoliko bakoitzaren biotza eta amesa, Vaticano-eleiza gurparri eta bertan bizi dan Eleiza katolikoaren buru Aita Santuari adi-adi dagoz gau ta egun.

AMEZTI.